

DONOSTIAKO "ENERTIC EXEKUZIO-PROIEKTUA, II. FASEA BULEGOEN BARNE EGOKITZAPENA", PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ, SORTAKA KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ERAENDU BEHAR DUTEN BALDINTZA ADMINISTRATIBO-EKONOMIKOEN PLEGUA

1. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratuaren helburua da Energia Eraginkortasunean Berritzeko Jakintza Etxeko (Enertic, Donostia) bulegoak barnetik egokitzeko lanak egitea; zentroa Martuteneko 27. Poligonoan kokatzen da, Ubarburu pasealekuko 29. zenbakian, Donostian (20014).

Aipatu obrak egitearekin batera eta kontratuaren helburuaren zati gisa, DONOSTIAKO SUSTAPENA SAREN asmoa da gizartean baztertzeko egoeran edo arriskuan aurkitzen diren pertsonak laneratzea sustatzea.

Kontratuaren xedean ondorengo sortak aurki ditzakegu:

- 1. Sorta: Klimatizazioa
- 2. Sorta: Elektrizitatea
- 3. Sorta: Telekomunikazioak
- 4. Sorta: Suteak
- 5. Sorta: Amaierak

Lizitatuzaileek aukera izango dute sorta baterako, bat baino gehiagorako edo guztietarako eskaintzak aurkezteko.

Sorta ezberdinen enpresa esleipendunek elkarrekin antolatu eta koordinatu beharko dute obra osoa behar bezala egitea bermatzeko, aurreikusitako epearen barruan.

Gainerako kontratistekin koordinazio zehatza izatea Plegu honetan adierazitako baldintzetan eta Zuzendaritza Fakultatiboak horren inguruan emandako jarraibideak eta plangintza betetzea kontratuan nahitaez bete beharko dira, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategineko (aurrerantzean SPKLTB) 223, f) artikuluan aurreikusitakoari jarraiki; Testu hori azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartu zen. Hori betetzen ez bada, DONOSTIAKO SUSTAPENA SAK kontratua bertan behera utzi ahal izango du.

Esleipendunak ezingo dio kalte-ordainik eskatu DONOSTIAKO SUSTAPENA SARI, aipatu kalte-ordain horiek beste sorta batzuen esleipendunek eragindakoak badira.

Sorta ezberdinen esleipendunek obraren barruko sorten antolakuntzatik eratorritako preskripzioak kontuan hartu beharko dituzte; aipatu preskripzioak X. Eranskinean agertzen dira.

2. ERAKUNDE KONTRATUGILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Erakunde kontratugilea DONOSTIAKO SUSTAPENA SA da (aurrerantzean SUSTAPENA edo sozietatea edo Donostiako Sustapena).

Kontratazio Organoa SUSTAPENeko Lehendakariordea da.

3. ESLEIPEN-PROZEDURA

Kontratua, prozedura irekiaren bidez, SUSTAPENAK esleituko dio sorta bakoitzerako ekonomia aldetik abantaila gehien duen eskaintza aurkezten duen lizitatuzaileari, Plegu honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera.

4. ALDAGAIK

Ez da aldagairik onartzen.

5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA

Kontratuaren izaera izango dute, esleipenaren ondoren egingo den kontratuaren edo egingo diren kontratuez gain, Baldintza Ekonomiko eta Administrazioen Plegu honek eta Exekuzio Proiektuak.

Agiri horiek esleipendunak sinatu beharko ditu, horiekin ados dagoela agertzeko, kontratua/k egiteko une berean.

6. GAUZATZEKO EPEA

Sorta guztiak gehienez SEI (6) HILABETEKO epean egin beharko dira, zuinketa-akta sinatzen den egunetik kontatzen hasita; zuinketa egiaztatzeako aktan, aurreko fasean dagoeneko gauzatutako eta sorta bakoitzarekin lotutako instalazioen berrikuspena sartuko da.

Gehieneko epe horren barruan, sorta bakoitzaren esleipenduna kontratua gauzatzen hasteko unea nahiz sorta bakoitzeko lanak garatzeko programazioa eta kronograma SUSTAPENAK bakarrik erabakiko du, Zuzendaritza Fakultatiboak proposatuta, kontuan izanik sorta bakoitzaren esleipendunek adierazitakoa baina Sustapenaren irizpide teknikoaren arabera.

Hasiera batean, kontratista guztiak eta bakoitza berandutzan ereriko dira SUSTAPENAK erabakitako eta Zuzendaritza Fakultatiboak egindako programazioan gauzatzeko aurreikusitako epeak igarotzen badira, eta, edonola ere, SEI (6) hilabeteko epea gaindituz gero, ez da beharrezkoa izango hori jakinaraztea. Hori guztia alde batera utzi gabe esleipendunek obraren likidazio osoaren unean izan ditzaketen erantzukizun zehatzak ezbairik gabe erabakitzea.

7. LIZITAZIO-AURREKONTUAK ETA BALIOETSITAKO BALIOA

Kontratuko exekuzio-obraren lizitazioaren aurrekontua gehienez MILIOI BAT, SEIREHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU MILA, BEDERATZIREHUN ETA LAUROGEITA LAU EURO ETA BERROGEITA BAT ZENTIMOKOA da (1.674.984,41 euro), BEZ sartu gabe. Aurrekontua honela banakatzen da sorta ezberdinen artean:

- 1. Sorta: Klimatizazioa:

Kontratu bakoitzeko lizitazioaren aurrekontua gehienez 678.616,99 eurokoa da, BEZ sartu gabe.

- 2. Sorta: Elektrizitatea:

Kontratu bakoitzeko lizitazioaren aurrekontua gehienez 304.560,62 eurokoa da, BEZ sartu gabe.

- 3. Sorta: Telekomunikazioak:

Kontratu bakoitzeko lizitazioaren aurrekontua gehienez 124.883,66 eurokoa da, BEZ sartu gabe.

- 4. Sorta: Suteak:

Kontratu bakoitzeko lizitazioaren aurrekontua gehienez 16.576,98 eurokoa da, BEZ sartu gabe.

- 5. Sorta: Amaierak:

Kontratu bakoitzeko lizitazioaren aurrekontua gehienez 550.346,16 eurokoa da, BEZ sartu gabe. Aurrekontu horretan sartzen dira, proiektu teknikoan agertu bezala, 5. sorta horren esleipendunak ordaindu beharreko gastuak, X. Eranskinean zehaztutakoak.

Aurrekontuak murriztu ahal izango dira lizitatzailerek aurkeztutako proposamen ekonomikoan, eta inola ere ezingo da horiek baino prezio altuagorik eskaini.

Aurkeztutako azken eskaintza ekonomikoa proiektuaren banakapenaren arabera banakatuko da. Era berean, proposamen ekonomikoan/etan prezio bateratuen zerrenda agertuko da, eta, 5. sortaren lizitatzailleen kasuan, haiek ordaindu beharreko gastuen banakapena, X. Eranskinean ezarritakoaren arabera.

Lizitatzailerek partida independente gisa adieraziko dute SUSTAPENAK izango duen BEZa.

Lizitatzailerek/ek eskaintako eskaintza ekonomikoan/etan eta prezio bateratuetan sartuzat joko dira obra egitearekin loturiko gainerako kontzeptuak, nahiz mozkin industrialak, segurtasun eta osasun arloko gastuak, kalitatea kontrolatzeko gastuak, hondakinen kudeaketa eta gastu orokorrak, tartean, 1. klausulan jasotako gastu solidarioak. Halaber, tasak (udal-lizentzia izan ezik) eta obra osoaren gaineko era guztietako gastuak sartuko dira.

Edozein obra-unitate behar bezala gauzatzeko eta amaitzeko behar diren lan, giza baliabide, baliabide laguntzaile eta material guztiak obraren prezioaren barruan sartuta daudela ulertuko da, nahiz eta prezioen deskonposaketan edo deskribapenean guztiak zehaztuta ez agertu.

Obrak gauzaterakoan lanak eraenduko dituen/dituzten kontratuaren/en aurrekontuen zenbatekoa eta prezio bateratuak esleipendunaren/en proposamenetik/netatik ateratakoak izango dira.

Ez da onartuko proiektua neurtzeko egoeraren edo sorta bakoitzerako proposatutako irtenbideen gaineko aldagairik eta aldaketarik. Proiektuan agertutako testua eta/edo neurketa aldatuz gero, automatikoki lizitaziotik kanpo geratzeko aukera izango da.

SPKLTBko 88. artikulua kontuan hartuta, kontratuaren gainean balioetsitako balioa 1.674.984,41 eurokoa da, BEZ sartu gabe. Sorten artean honela banatzen da:

- 1. Sorta: Klimatizazioa: 678.616,99 euro, BEZ sartu gabe.
- 2. Sorta: Elektrizitatea: 304.560,62 euro, BEZ sartu gabe.
- 3. Sorta: Telekomunikazioak: 124.883,66 euro, BEZ sartu gabe.
- 4. Sorta: Suteak: 16.576,98 euro, BEZ sartu gabe.
- 5. Sorta: Amaierak: 550.346,16 euro, BEZ sartu gabe.

8. PREZIOAK ETA ORDAINKETAK

Kontratatistak/ek eskubidea izango dute sorta bakoitzean gauzatutako betekizun bakoitza ordaintzeko.

Sorta bakoitzean ordaindu beharreko prezioa izango da sorta horretan benetan gauzatutako obraren neurketei esleipendunaren/en proposamen ekonomikoan sartutako prezio unitarioak aplikatuta ateratzen dena gehi dagokion BEZa.

Sorta bakoitzean egindako obraren zenbatekoa hileroko egiaztatu beharko da Zuzendaritza Fakultatiboak dagokion hilabetearen hurrengo lehen hamar egunetan egindako ziurtagirien bitartez; ziurtagiri horietan, denboraldi horretan egindako obra jasoko da.

Ziurtagiri horietan, X. Eranskineko 5. atalean aipatzen den atxikipena egingo da; alegia, funts bat eratuko da, eta funts hori erabiliko da kalteak konpontzeko, desagertutako elementuak jartzeko edo aparteko gastuak egiteko, Zuzendaritza Fakultatiboak esleipendun bati egoztea erabaki ezin badu. Era berean, SUSTAPENAK ordainduko ditu, funts horren kargura, obrako hornidurak; hala nola, ura eta elektrizitatea. Funtsa SUSTAPENAK kudeatuko du, Zuzendaritza Fakultatiboak proposatuta, eta likidatu ahal izango da obra erabat amaitzean.

Enkargu bakoitzaren ordainketa sorta bakoitzari dagokion obraren likidazioaren konturako ordainketa moduan hartuko da, gauzatutako obraren amaierako neurketan sortuko diren zuzenketa eta aldaketak kontuan hartuta, eta ordainketa horiekin ezingo da inola ere ontzat hartu ziurtagiri horietan aipatutako obrarekin ados egotea, obra onartzea eta hartzea.

Enpresa kontratugileak/ek hileroko faktura egin beharko dute hurrengo hilabeteko lehen hamar egun naturaleko epean.

Sorta bakoitzean gauzatutako obra-unitateen gaineko prezioa ordainduko da ziurtagiri bakoitzari dagokion faktura-egunetik 60 eguneko epea gainditzen den hilabeteko azken egunean.

9. FINANTZAKETA

Enertic proiektua ondorengo erakundeek batera finantzatua da: Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzako Programa Eragilea 2007-2013 (POCTEFA 2007-2013 / EU; EFA 149/09) eta Avanza Plana, Industria, Energia eta Turismo Ministerioa (TSI-070200-2009-67).

10. PREZIOA BERRIKUSTEA

Ez da preziorik berrikusiko.

11. PUBLIZITATEA

Lizitazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta SUSTAPENAREN kontratugilearen profilean iragarriko da.

Esleipena SUSTAPENAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Profil horretara ondorengo web orrialdearen bidez sartu behar da:
www.fomentosansebastian.org

Iragarkien zenbatekoa enpresa esleipendunen kontura egingo da. Era horretan, enpresa esleipendun bat baino gehiago izanez gero, faktura portzentajea banatuko da, esleitutako sorten prezioa kontuan hartuta.

12. BEHIN BETIKO BERMEA

Enpresa esleipendunek, hartutako betebeharrak betetzea bermatze aldera, lizitatzen duten sortaren esleipenaren prezioaren %5aren baliokidea den behin betiko bermea eratu beharko dute, BEZ kanpo.

Aipatu bermea/ak eratzeko epea hamar lanegunekoa izango da, SUSTAPENAK horretarako egingo duen eskaera jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Bermea eratzeko, SPKLTBko 96. artikuluan ezarritako edozein bide erabili ahal izango da.

Bermea/ak eskudirutan eratzuz gero, zenbatekoa honako kontu korrante honetan sartuko da:
2101 0381 0800 1138 6299.

Abal moduan ematen bada, Plegu honetako I. Eranskinean agertzen den eredia bete beharko da.

Bermea/ak SPKLTBko 102. artikulua araberak itzuliko da/dira, behin bermearen epea igarota eta enpresa kontratistak/ek kontratuko betebeharrak guztiak beteta.

Behin betiko bermearen/en gainean enpresa kontratistari/ei eska dakizkiekeen zigorrak edo kalte-ordainak gauzatu badira, horiek bermeak dagokion zenbatekoan itzuli edo handitu beharko dituzte, gauzatu eta hamabost egun baliaduneko epean; bestela, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

Baldintza honetan aurreikusi gabeko guztian, SPKLTBko 95. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa aplikatuko da.

13. GAITASUN-BALDINTZAK

SUSTAPENArekin kontratatu ahal izango dute jarduteko ahalmen osoa duten, kontratatzeke debekurik ez duten eta lehiatu nahi duten sortarako behar bezala sailkatuta aurkitzen diren Espainiako zein atzerriko pertsona natural edo juridikoek.

Enpresa lizitatzailleek, halaber, kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko eska daitekeen gaikuntza profesionala edo enpresa-gaikuntza izan beharko dute, eta ezingo da onartu aldi baterako laneko enpresen gaikuntza profesionala.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendun izateko, ezinbestekoa izango da kontratuaren prestazioak haien estatutuen edo fundazio-arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo esparruaren barruan egotea.

Nolanahi ere, SUSTAPENArekin kontratatzeke ahalmena izango dute Europar Batasuneko estatuetako enpresa ez espainiarrek, baldin eta ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera kasuan kasuko prestazioa gauzatzeko gaituta badaude. Kasu horretan, SPKLTBko 58. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Enpresa horiek ezarrita dauden estatuko legediak kasuan kasuko zerbitzua egin ahal izateko baimen bereziren bat edo erakunde jakin bateko partaide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Gehigarri gisa, Europar Batasunekoak ez diren estatuetako pertsona fisikoek edo juridikoek jarduteko gaitasuna ziurtatu beharko dute dagokion Estatuan dagoen Espainiako Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo enpresaren helbidea aurkitzen den lurralde-eremuko Bulego Kontsularraren txostenaren bitartez. Txosten horren bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak aldi berean onartzen duela Espainiako enpresek parte hartzea Administrazioarekin eta SPKLTBko 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekin egindako kontratazioetan.

Erkidegokoak ez diren enpresek sukurtsala irekita izan beharko dute Espainian, eta ahalduak edo ordezkariak izendatuta izango dituzte eragiketak egiteko, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egoteaz gain.

SUSTAPENArekin kontratatu ahal izango dute horretarako aldi baterako eratzen diren enpresaburuen elkarteek. Ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan formalizatzea harik eta kontratua haien alde esleitu arte. Kasu horretan, SPKLTBko 59. artikuluan aurreikusitakoa aplikatu ahal izango da.

1. eta 5. sortarako eskaintza aurkezten duten lizitatzailleek ondorengo sailkapenak izatea ziurtatu beharko dute:

donostiasustapena fomentosansebastián

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
DONOSTIAKO GARAPEN EKONOMIKOA
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT



PLAN
AVANZA



- 1. Sorta: Klimatizazioa:
J Taldea; 2 Azpitaldea; e) Categoria
I Taldea; 9 Azpitaldea; d) Categoria
- 5. Sorta: Amaierak:
C Taldea; 4 Azpitaldea; d) Categoria
C Taldea; 6 Azpitaldea; d) Categoria

Bestalde, 2., 3, eta 4. sortarako eskaintza aurkezten duten lizitatuzaileek frogatu beharko dute ondorengo kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala izatea:

- Kasuan kasuko sortaren xedeari dagozkion jardueren eremuan, azken hiru urtetan eta sorta bakoitzerako negozio-bolumena gutxienez izatea dagokion sortaren aurrekontuaren bikoitza.
- Azken hiru urtetan eta sorta bakoitzerako, kasuan kasuko sortaren xedearen antzeko ezaugarriak dituzten 5 proiektu garatzea gutxienez.

Ez zaie sailkapena eskatuko Europar Batasuneko estatu kideetako enpresaburu ez espainiarrei, kontratuan banaka edo elkarre moduan aurkeztuta ere, baina kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala frogatu beharko dute; hots, Plegu hauetan eskatutako sailkapenak lortzeko beharrezkoa denaren baliokidea.

Kaudimenaren egiaztapena osatzeko, kontraturako eta lehiatuko diren sorta bakoitzerako gutxienez ondorengo giza baliabideak izateko konpromisoa beharko dute lizitatuzaileek:

- Obra-burua, behar bezalako titulazioarekin eta lehiatuko den sortaren antzeko lanetan bost urtetik gorako esperientzia duena.

Konpromiso horrek kontratuaren funtsezko betebeharraren izaera izango du, SPKLTBko 223.f) artikuluan aurreikusitakoa betetze aldera; beraz, hori betetzen ez bada, SUSTAPENAK kontratua suntsitzeko arrazoia gertatuko da.

Sorta bakoitzerako eskatutako sailkapenak eta/edo aurrean aipaturiko gutxieneko giza baliabideak jartzeko konpromisoa ziurtatzeko, beste erakunde batzuen sailkapenean/etan edo baliabideetan oinarritu nahi duten lizitatuzaileek, haiekin dituen loturen izaera juridikoa alde batera utzita, Notarioaren aurrean egindako idatzia aurkeztu beharko dute (II. Eranskinetako eredu bezala), eta, idatzi horretan, inplikaturiko enpresek ondorengo adieraziko dute: erabat ezagutzen dituela/dituztela lizitatuzailea aurkeztutako lizitazioaren baldintzak; lizitatuzaile horren eskura jartzeko borondate ezeztazina adierazten duela/dutela, esleipenduna atereaz gero, kontratua gauzatzeko beharrezko sailkapena/k eta/edo bitartekoak (eta Kode Zibileko 1257.2 artikuluan ezarritakoa onartzen dutela; Administrazioak

baimendu beharko du hori ordezkatea edo aldatzea). Idatzi hori aurkezten bada, SUSTAPENAK konpromiso hori onartu beharko du, lizitatzaila esleipenduna ateratzen den kasuan.

14. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

Proposamenak aurkezteak esan nahi du lizitatzailak baldintzarik gabe onartzen dituela Plegu eta Proiektu osoa, inolako salbuespenik gabe.

Plegua eta Proiektua SUSTAPENAREN bulegoetan aztertu ahal izango dira (Morlansgo biribilgunea 1, 2. solairua, 20.009 Donostia), lanegunetan 9:00etatik 13:00era, lizitazioaren lehen iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita eta proposamenak aurkezteko epe osoan zehar.

Gainera, Pleguak eskuratu ahal izango dira aipatu egunetik aurrera eta epe berean SUSTAPENAREN kontratugilearen profilean (www.fomentosansebastian.org).

Halaber, lizitatzailak aukera izango dute **DONOSTIAN, ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAN BERRITZEKO JAKINTZA-ETXEAREN-ENERTIC-EN** instalazioak bisitatzeko, egokitu edo berritu beharreko espazioak ezagutze aldera. Horretarako, telefonoz eskaera egin behar da bisita egin nahi den eguna baino gutxienez 48 ordu lehenago.

Lizitazioan parte hartzeko, lizitatzailak aurrean adierazitako SUSTAPENAREN bulegoetan aurkeztu beharko dituzte, lanegunetan, 9:00etatik 13:00era, eta GAOn lizitazio hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 26 egun bete bitarte, hiru gutun-azal itxi, jarraian adieraziko den dokumentazioarekin. Gutun-azal horietan, ondorengoak adieraziko dira: enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta izaera, telefonoa eta faxa, posta elektronikoa helbidea nahiz jakinarazpenak jasotzeko erabiltzea nahiago duen baliabidea. Azken hori Plegu hauetan III. Eranskina moduan agertzen den eredura egokituko da. Hori guztia erraz irakurtzeko moduan azalduko da.

Gutun-azal bakoitzaren atzealdean, ondorengo izena agertuko da: **"DONOSTIAN, ENERGIA ERAGINKORTASUNEAN-ENERTIC-EN BERRITZEKO JAKINTZA-ETXEAREN EXEKUZIO-PROIEKTUKO BULEGOAK BARNETIK EGOKITZEA (II. FASEA) PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA"**, zein sortara lehiatzen den nahiz dagokion zenbakia (1. gutun-azala, 2. gutun-azala edo 3. gutun-azala, dagokionaren arabera).

Gutun-azal bakoitzaren edukia barnean aparteko orri batean zenbaki bidez jasoko da, eta eduki hori ondorengo dokumentuek osatuko dute:

1. Gutun-azala.- "KONTRATATZEKO GAITASUNA"

donostiasustapena fomentosansebastián

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
DONOSTIAKO GARAPEN EKONOMIKOA
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT



PLAN
AVANZA



Lizitzaileek kontratatzeko gaitasunaren inguruko gutun-azala aurkeztu beharko dute, **gutun-azal independentean lizitatuko duten sorta bakoitzerako.**

a) Lizitzailearen eta, hala badagokio, haren ordezkariaren jarduteko ahalmena frogatzeko dokumentuak:

- Pertsona juridikoak diren enpresaburuaren jarduteko ahalmena egiaztatzeko, dokumentu hauek aurkeztuko dira: eratzeko eskritura edo dokumentua, Estatutuak edo fundazio-egintza, jardura arautzen duten arauak jasotzen dituztenak, dagokion Erregistro Publikoan behar bezala inskribatuta, kasuan kasuko pertsona juridikoaren motaren arabera.

- Europar Batasuneko Estatuetakoen enpresaburu ez espainiarren jarduteko ahalmena egiaztatzeko, dokumentu hauek aurkeztuko dira: ezarrita dauden Estatuako legediaren arabera dagokien erregistroko inskripzioa edo zinpeko aitortpena edo ziurtagiria, aplikatzekoak diren erkidegoko xedapenei jarraiki.

- Gainerako enpresaburu atzeritarren jarduteko gaitasuna frogatzeko, dagokion Estatuan Espainiak duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo enpresak egoitza duen lurralde-eremuko Bulego Kontsularraren txostena aurkeztuko da. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko Estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek parte hartzea hango administrazioarekin eta SPKLko 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekin egindako kontratazioetan.

Erkidegokoak ez diren enpresek sukurtsala irekita izan beharko dute Espainian, eta ahalduak edo ordezkariak izendatuta izango dituzte eragiketak egiteko, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egoteaz gain.

- Pertsona fisikoak diren enpresaburuaren jarduteko ahalmena frogatzeko nortasun-agiri nazionala edo dagokien estatuko baliokidea aurkeztuko da.

- Besteren izenean agertu edo proposamenak sinatzen dituztenek nortasun-agiri nazionalaren kopia eta horretarako behar besteko ahalordea aurkeztuko dituzte. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan jasota egon beharko du, Merkataritza Erregistroaren Araudiaren 94. artikuluan aurreikusitakoaren arabera hala exijitzen denean.

- Aldi baterako elkarte batean bilduta esku hartu nahi duten enpresaburuak elkartearen eratzeko izenak eta ezaugarriak eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte, baita esleipendun suertatuz gero formalki aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoa hartzen dutela adierazi ere. Aldi baterako elkarte batean bilduta esku hartu nahi duten enpresaburuak solidarioki behartuta geratuko dira, eta elkartearen ordezkari edo ahaldu bakarra izendatu beharko dute, kontratua iraungi artean haren ondorio diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordeekin. Alabaina, ahalorde

erkidetuak ere eman ahal izango dituzte zenbateko handi samarreko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

Enpresaburuen aldi baterako elkarteak osatzen duten etariko bakoitzak atal honetan aurrean aurreikusitakoaren arabera egiaztatu beharko du jarduteko duen gaitasuna.

Aurkeztuko diren dokumentu horiek guztiak jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako kopiak izango dira. Dokumentazioa Sustapenaren bulegoetan ere konpultsatu ahal izango da.

b) Lizitazilea SPKLTBko 60.1 artikuluan kontratuak egiteko ezartzen diren debekuetako batean ere ez dagoela egiaztatzeko, IV. Eranskinean azaltzen den ereduaren arabera aitortu erantzulea.

Aitorpen horretan agertuko da, halaber, indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak enpresaburuak egunean dituela. Era horretan, ekonomikoki abantaila gehien dituen eskaintza aurkeztutako lizitazileak baldintza hori egiaztatzeko justifikazioa aurkeztu beharko du, gehienez hamar laneguneko epean, SUSTAPENAREN eskaera jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

c) Eskatutako kaudimena egiaztatzeko agiriak:

o 1. eta 5. sorten inguruan:

Obren enpresa kontratistak ondorengo sailkapenak izatea egiaztatzeko ziurtagiria aurkeztuko da:

- 1. Sorta: Klimatizazioa:
J Taldea; 2 Azpitaldea; e) Categoria
I Taldea; 9 Azpitaldea; d) Categoria
- 5. Sorta: Amaierak:
C Taldea; 4 Azpitaldea; d) Categoria
C Taldea; 6 Azpitaldea; d) Categoria

Eskumeneko organoak emandako ziurtagiria aurkeztuko da, enpresak egindako aitortu erantzulearekin batera, indarrean dagoela eta ziurtagiri horretan agertutako baldintzak ez direla aldatu adierazteko. Adierazpen hori errepikatu beharko da, esleipena suertatuz gero, kontratua gauzatuko den agirian.

Ziurtagirian egiaztatuko da enpresa zehaztutako taldean eta azpitaldean sailkatuta dagoela, aipatutakoaren kategoria berdinean edo handiagoan.

Era berean, ziurtagiri horren bitartez egiaztatu ahal izango dira Klausula honetako a) atalean aipatutako baldintzak; hau da, enpresak jarduteko duen gaitasuna, eta, hala badagokio, ordezkaritza.

Ez zaie eskatuko sailkapena Europar Batasuneko Estatuetakoen enpresa ez espainiarrei. Europar Batasuneko Estatuetakoen enpresa ez espainiarrek egiaztatu beharko dute kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala, Plegu honetan eskatutako obren kontratistaren sailkapena lortzeko behar denaren baliokidea.

o 2., 3. eta 4. sorten inguruan:

Honela egiaztatuko da:

- Kasuan kasuko sortaren xedeari dagozkion jardueren eremuan, azken hiru urtetan eta sorta bakoitzerako izandako negozio-bolumenaren gaineko aitortpena. Negozio-bolumen hori dagokion sortaren aurrekontuaren bikoitza izango da gutxienez.
- Azken hiru urtetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, horien zenbatekoa, datak eta hartzaile publikoa edo pribatua eta guzti. Aipatu sortaren xedearen antzeko ezaugarriak dituzten 5 proiektu jasoko dira gutxienez, horietako urte bakoitzerako.

d) Kontratua gauzatze aldera, Plegu honetako 13. Klausulan gutxienez adierazitako giza baliabideak adskribatzeko konpromisoa. Adskribatutako pertsona identifikatu beharko da, eta haren titulazioa, esperientzia-urteak eta eskatutako esperientzia izatea justifikatzen duen curriculum vitae-a agertu beharko dira, "Adskribatzeko konpromisoa eta Curriculum Vitaeren eredu" izeneko VII. eranskinean jasotako ereduaren arabera.

Konpromiso horrek kontratuaren funtsezko betebeharraren izaera izango du, SPKLTBko 223.f) artikuluan aurreikusitakoa betetze aldera; beraz, hori betetzen ez bada, kontratua suntsitzeko arrazoia gertatuko da.

e) Hala badagokio, adierazpenen inguruan notarioak egindako akta, sailkapena/k eta/edo gutxienerako giza baliabideak adskribatzeko konpromisoa egiaztatzeko lizitatzailak beste erakunde batzuen sailkapenean/etan edo baliabideetan oinarritu nahi duenean, II. Eranskineko ereduaren arabera.

f) Jakinarazpenak hartzeko nahiago den baliabidea izendatzea, Plegu honetako III. Eranskineko ereduari jarraiki.

g) Berariazko aitopen erantzulea adierazteko konpromisoa hartuko duela obra egiteko hartutako langileek jaso ez dezaten Gipuzkoako Eraikuntzaren Hitzarmen Kolektiboan konpara daitezkeen langileentzat ezarritako ordainsaria baino ordainsari baxuagoa (VIII. eranskineko eredia beteko da).

h) Atzerriko enpresek, kontratutik zuzenean edo zeharka erator daitekeen gorabehera orotarako, Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzeko berariazko adierazpena aurkeztu beharko dute. Adierazpen horren barruan sartuko da, hala badagokio, lizitatzailari egoki dakioken atzerriko jurisdikzio-foruari uko egitea ere.

Atzerriko enpresek dokumentazioa euskarara, edo, hala badagokio, gaztelerara modu ofizialean itzulita aurkeztuko dute.

1998ko otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialari buruzkoak, araututako Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda dauden lizitatzailerek Erregistroaren ardura duen legelariak emandako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkez dezakete, a) eta c) ataletan eskatutako dokumentazioaren orde. Baldintza honetako c) atalean aipatzen den sailkapena ziurtagiri horretan agertzen ez bada, lizitatzailak sailkapenaren inguruan indarrean duen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

SUSTAPENAK eskubidea izango du egiaztatzeko egokitutako jotako lanak egiteko edo beharrezkotzat jotako dokumentazio gehigarria eskatzeko, lizitatzailerek emandako informazioa egiazkoa dela frogatzearren.

2. Gutun-azala.- "PROPOSAMEN TEKNIKOA"

Lizitatzailerek beren proposamen teknikoak aurkeztu beharko dute, **gutun-azal independentean lizitatzen duten sorta bakoitzerako**. Bestek beste, dokumentu hauek jasoko dira:

- Memoria teknikoa: lanak egiteko modua deskribatuko da. Obren inguruko arazoak eta obrak egiteko baldintzak ezagutzen dituela erakutsi beharko du. Halaber, ingurumen-arluko irizpideak betetzen dituela azalduko du, eta kontratua gauzatzeko lizitatzailak adskribatuko duen giza taldea adieraziko da, haien funtzioak eta egitekoak zeintzuk diren esatearekin batera.
- Lanerako plana. Bereziki kontuan izango dira sorta ezberdinen enpresa esleipendunekin koordinatzeko eta antolatzeko mekanismoak, obra behar bezala egitea eta sortetara egokitzea eta horien artean malgutasuna izatea bermatzearren.
- Baliabide teknikoak eta materialak: kontratua gauzatzeko adskribatuko diren makinak eta baliabide materialen zerrenda deskribatuko da.

3. Gutun-azala.- "PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA PLANTILLA"

Lizitatuzaileek beren proposamen ekonomikoa aurkeztu beharko dute, **lizitatuko duten sorta bakoitzerako banako gutun-azalean.**

Proposamen ekonomikoa Plegu honetako V. Eranskineko eredura egokituko da.

Era berean, obra gauzatzeko kontratatuko dituzten giza baliabideak aurkeztu beharko dituzte lizitatuzaileek (hots, gauzatzeko kontratatutako hileko pertsona-kopurua). Modu berean zehaztuko da langile berriak kontratatzeko konpromisoa eta horiek gizartetik baztertzeko egoeran edo arriskuan aurkitzen diren pertsona langabeak izatea. Egoera hori XI. Eranskineko kolektiboen deskribapenean zehazten da.

Plantillaren inguruko konpromisoa Plegu honetako IX. Eranskineko eredura egokituko da.

15. BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Balorazio-irizpideak, dagokien haztapen eta guzti, honako hauek izango dira hiru sortetarako:

1. Proposamen teknikoa:

Gehienez 35 puntu.

- Memoria teknikoa: Gehienez 20 puntu; horietatik 5 ingurumen-arloko irizpideak betetzearen ingurukoak izango dira.
- Lanerako plana: Gehienez 10 puntu.
- Baliabide teknikoak eta materialak: Gehienez 5 puntu.

2. Proposamen ekonomikoa eta plantilla:

Gehienez 65 puntu.

- Proposamen ekonomikoa: Gehienez 60 puntu.

Eskaintza ekonomikoa honela baloratuko da:

- Lizitazioaren gehieneko zenbatekoaren gaineko %0 eta %10 arteko bajetarako, puntuazioa honako formula honen arabera emango da:
 $P_{tn}=4*m$
- Lizitazioaren gehieneko zenbatekoaren gaineko %10 eta %20 arteko bajetarako, puntuazioa honako formula honen arabera emango da:

$$P_{tn}=1,5 *m+25$$

- Litzazioaren gehieneko zenbatekoaren gaineko %20tik gorako bajetarako, puntuazioa honako formula honen arabera emango da:

$$P_{tn}=60 - 5/(m-19)^2$$

(izanik: m= enpresa lizitatzailer bakoitzaren lizitazioko gehieneko zenbatekoaren gaineko baja portzentuala eta P_{tn} = Lizitatzailer bakoitzak lortutako puntuazioa).

Proposamen bat desproporzionatua edo ezohikoa jotzen bada, aurkeztu duen lizitatzailerari horren berri eman beharko zaio, eskaintzaren balorazioa justifikatu eta horren baldintzak zehatz ditzan.

Horretarako, desproporzionatutzat edo ezohikotzat hartuko da proposamen guztien batez besteko aritmetikoa baino 25 unitate portzentual edo 25 unitate portzentaletik gora baxuagoa den eskaintza.

- Plantilla: Gehienez 5 puntu.

2,50 puntu emango zaizkio obra gauzatzeko hileko pertsona-kopuru handiena kontratatuzeko konpromisoa hartzen duen enpresari (hots, hilabete osorako lanaldi osoan kontratatutako pertsona bat) eta 0 puntu kopuru txikiena aurkezten duenari; hortaz, gainerako enpresei puntuazioa proportzionalki emango zaie. Modu berean, 2,50 puntu emango zaizkio obra gauzatzeko gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan aurkitzen diren pertsona langabeen kopuru handiena kontratatuzeko konpromisoa hartzen duen enpresari eta 0 puntu kopuru txikienari; era horretan, gainerako enpresei puntuazioa proportzionalki emango zaie.

16. EBALUAZIO-BATZORDEA

Proposamenak baloratzeko Ebaluazio Batzordea ondorengo kideek osatuko dute:

- Lehendakaria: Eukén Sesé Sarasti
- Kideak: Ana Aizpuru, Juan Castillo eta Sofía del Orden

Ebaluazio Batzordeak Donostiako Udaleko Hiriko Azpiegitura eta Zerbitzuen Sailaren aholkularitza jaso ahal izango du.

17. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak 1. gutun-azaleko ("Kontratazeko gaitasuna") dokumentazioa kalifikatuko du lehenik, behar den bezala eta epearen barruan aurkeztutakoa. Aurkeztutako agiri horietan zuzen daitezkeen akatsak ikusten baditu, hiru laneguneko epea eman ahal izango du, lizitatzailak akatsak zuzen ditzan.

Jarraian, 2. gutun-azala irekiko da, proposamen teknikoarena, aztertu eta balorazioa ematearren.

Ondoren, 3. gutun-azala irekiko da, proposamen ekonomikoarena, balorazioa egite aldera.

C gutun-azaleko proposamen ekonomikoak irekitzeko ekitaldi publikoa egingo da, Donostiako Sustapenaren Kontratazio eta Erosketak Atalean (Errondo Gaina kalea 2, 2. solairua, Morlans eraikina, 20.009 Donostia), eta hori zein egunetan eta zein ordutan izango den onartutako lizitatzaila guztiei jakinaraziko zaie haiek jakinarazpena hartzeko aukeratutako bitartekoen bidez eta behar adinako aurrerapenarekin.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko ekitaldi publikoaren hasieran, bertaratutako lizitatzailaeei emango zaie haien proposamen teknikoaren balorazioaren emaitza.

Proposamenak irakurri eta gero, alde batera utziko dira urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 84. artikuluan aurreikusitako kausaren batean aurkitzen direnak. Dekretu horren bidez, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen da (aurrerantzean HAKLEO).

Proposamen ekonomikoak irekitzeko ekitaldia behin amaituta, horiek aztertu eta baloratuko dira.

Ebaluazio Batzordeak Kontratazio Organoari igorriko dio aurkeztutako proposamenen zerrenda, hots, desproporzionalak edo ezohikoak aitortu ez direnena, gehienetik gutxienera sailkatuta, 15. klausulan ezarritako balorazio-irizpideei jarraiki, eta Sorta bakoitzean ekonomikoki abantaila gehien duen eskaintza identifikatuko du.

Proposamena/k eman aurretik, beharrezkotzat jotako txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

Ebaluazio Batzordearen proposamenak/nek txosten juridikoa beharko dute.

Ebaluazio Batzordeak sorta bakoitzerako ekonomikoki abantaila gehien duen proposamena identifikatzeak ez du inolako eskubiderik sortzen sorta horretan proposaturiko lizitatzailaren alde.

18. KONTRATUA/K ESLEITZEA

Esleipenerako/esleipenetarako hautatutako lizitzailea/k hautatzeko, Kontratazio Organoa, arau oroko gisa, SUSTAPENAREN Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenera egokitu beharko du. Horrela egin ezean, Kontratazio Organoak proposamenetik/tatik bereizteko erabakia arrazoitu beharko du, eta, hala badagokio, proposamenen behin betiko sailkapena/k egin beharko du/ditu.

Sorta bakoitzean ekonomikoki abantaila gehien duen eskaintza aurkezturiko lizitzaileari/ei Kontratazio Organoak eskatuko die ondorengo dokumentazioa aurkezteko 10 laneguneko epean, eskaera jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita:

- a) Behin betiko bermea eratu duela ziurtatzen duen egiaztagiria, Plegu honetako 12. klausulan aurreikusitakoaren arabera.
- b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea justifikatzen duen dokumentazioa.
- c) Hark kontrataturiko aseguru-polizaren kopia, Plegu honetako 24. klausulan ezarritakoaren arabera.
- d) Kontratua gauzatzeko konpromisoa harturiko baliabideak izatea ziurtatzen duen dokumentazioa.
- e) Hala badagokio, aldi baterako enpresa-elkartea legez eratu izanaren eskritura publikoaren kopia.
- f) Plegu honetako 11. klausulan aurreikusitakoa kontuan hartuta, lizitazioaren iragarkiaren gastuak ordaindu izanaren frogagiria.

Eskaera horiek adierazitako epean behar bezala bete ez badira, lizitzaileak/ek bere/n eskaintza/k erretiratu duela/dituztela ulertuko da, eta, kasu horretan, kasuan kasuko sortaren/sorten hurrengo lizitzaileari dokumentazio bera eskatuko zaio, eskaintzak sailkatutako ordenari jarraiki.

Kontratazio Organoak kontratuaren/en esleipena/k erabakiko ditu aipatu dokumentazioa jaso eta hurrengo 5 laneguneko epearen barruan, eta gehienez bi hilabeteko epean, proposamenak irekitzen diren egunetik kontatzen hasita.

Kontratazio Organoak esleipena/k erabakiko du/ditu arrazoitutako ebazpenaren/en bidez. Sorta bakoitzaren lizitzaileei jakinaraziko zaizkie Plegu honetako III. Eranskineko ereduaren arabera adierazitako bitartekoaren bidez, eta, aldi berean, SUSTAPENAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da/dira.

19. KONTRATUA HOBETZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua/k formalizatzerakoan hobetuko da/dira.

Kontratua/k dokumentu pribatuan formalizatuko da/dira, sorta bakoitzaren lizitzaileen esleipenaren eta bakoitzaren esleipendunaren/en jakinarazpena jaso eta gehienez hurrengo 15 laneguneko epean.

Esleipendunak/ek, dena den, eskatu ahal izango du/dute kontratua/k eskritura publiko bilakatzeko. Kasu horretan, hori egiteko gastuak haien kontura egingo dira.

Kontratatari/kontratatistei egotz dakizkiokeen/dakizkiekeen arrazoiengatik kontratua/k adierazitako epean formalizatu ez bada/badira, SUSTAPENAK kontratua/k suntsiarazteko erabakia hartu ahal izango du. Kasu horretan, bidezkoa izango da dagozkion kalte-ordainak ordaintzea.

Era horretan, SUSTAPENAK sortaren/en hurrengo lizitzaileari edo lizitzaileei eskatu ahal izango dio/die Plegu honetako 18. klausulan agertzen den dokumentazioa aurkezteko; horretarako, hamar laneguneko epea emango die.

20. KONTRATUAREN/EN ARDURADUNA

SUSTAPENAREN Kudeatzailletza izango da kontratuaren/en organo arduraduna, eta lanak gainbegiratu, erabakiak hartu eta beharrezko jarraibideak eman beharko ditu hitzartutako prestazioa behar bezala egitea ziurtatze aldera. Bestalde, Kudeatzailletzak pertsona fisiko edo juridikoari ahalmena eman ahal izango dio funtzio hori betetzeko, SUSTAPENAREkin lotua edo loturarik ez duena.

Kontratuaren arduraduna izendatzeak eta haren ahalmenak betetzeak ez du esan nahi kontratista/k kontratuaren xedea behar bezala gauzatzetik aske geratu behar duenik/dutenik, hutsegiteak SUSTAPENAREN zuzeneko aginduaren bidez sortutakoak direnean salbu, eta kontratatistak/ek berariazko erreserba idatzia eginda SUSTAPENARI.

Kontratua/k gauzatzeko edozein unetan, kontratuaren/en arduradunak bere funtzioak egiteko beste pertsona bati ahalmena emanaz gero, idatziz jakinaraziko zaio/e kaltetutako kontratatistari/ei.

Modu berean, kontratuaren/en arduraduna kontratua/k gauzatzeko edozein unetan ordezkatzan bada, kontratatistari/ei idatziz jakinaraziko zaio/e.

SUSTAPENAK, langileen edo kontratuaren/en arduradunaren bitartez, kontratatistaren/en ordezkari batekin batera, edozein unetan egiaztatu ahal izango du kontratuaren xedea betetzen ari den, eta kontratua gauzatzen ari den lekura edo lekuetara sartu ahal izango du.

Kontratuaren/en arduradunak emandako instrukzioak nahitaez bete beharko ditu/dituzte kontratistak/ek.

Kontratuaren/en arduradunak edo, haren lekuan, horretarako izendatutako pertsona teknikoak gertaeren Akta egiteko ardura izango du, eta kontratua gauzatzekoan bete ez diren egiteko guztiak salatuko ditu.

21. KONTRATUA/K GAUZATZEA

Kontratua/k gauzatu da/dira haien baldintzen, Baldintza Ekonomiko eta Administrazioen Pleguaren, Exekuzio Proiektuaren, enpresa kontratistak/ek aurkeztutako eskaintzaren eta SUSTAPENAK edo kontratuaren/en arduradunak emandako jarraibideen arabera.

Zehazki, kontratua/k honako baldintza hauei jarraiki beteko dira:

- Kontratua/k enpresa kontratistaren/en arrisku eta benturara gauzatu da/dira.
- SUSTAPENAK edozein unetan edozein bitartekoren bidez kontrolatu, egiaztatu, gainbegiratu eta ikuskatu ahal izango du kontratuko betebeharrak behar bezala betetzen eta gauzatzen ari diren.

SUSTAPENAK egokitzen jotako kanpoko laguntzak bildu ahal izango ditu kontratuko betebeharrak behar bezala betetzen diren eta lana garatzekoan eskatutako kalitate-maileri eusten zaien egiaztatzeko.

Enpresa kontratistak/ek inola ere ezingo ditu/dituzte oztopatu SUSTAPENAK ikuskatzeko eta kontrolatzeko egindako lanak.

- Kontratistak bete beharko ditu zerga- eta lan-arloan eta Gizarte Segurantzari eta Laneko Arriskuak Prebenitzeari dagokienean indarrean dauden xedapenak, prestaziorako jarritako langileen inguruan. Horretarako, langileei eman beharko dizkie eremu horretan beharrezkoak diren prestakuntza-ikastaroak.
- Era berean, enpresa kontratistak/ek ardura izango du/dute segurtasun, higiene eta laneko osasunaren alorrean indarrean dagoen araudia langileek betetzeko; baita Kontratazio Organoak eman dezakeen funtzionamendu orokorraren gaineko araudia ere.

Langile guztiak soilik enpresa kontratistaren/en mende egongo dira, eta enpresa-izaerarekin lotutako eskubideak eta betebeharrak izango dituzte; hortaz, ezingo zaio SUSTAPENARI erreklamatu lanerako harreman horietatik edo gainerako betebeharretatik eratorritako erreklamaziorik.

Enpresa kontratista/k izango da/dira erantzule bakarra/k prestazioa gauzatzeko lan egiten duten langileekin (haienak edo aldi baterako azpikontratazioetakoak) lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo judizioz kanpokoak); beraz, SUSTAPENAK ez du onartuko kontratistak/ek zuzenean edo zeharka har dezakeen/dezaketen inolako lan-erantzukizunik (segurtasun, higiene eta laneko osasunaren ingurukoa barne), ez eta Gizarte Segurantzakorik edo fiskalik ere. Modu berean, enpresa kontratistak/ek onartuko dituzte prestazioa gauzatzean sortutako ezbeharretatik eratorri daitezkeen erantzukizunak.

- Kontratuaren xedea den prestazioak ez du izango edo ez du sortuko, inongo kasuan, SUSTAPENAK norberaren datuak tratatzea.

Modu horretan, norberaren datuen gainean kontratua indarrean den bitartean enpresa esleipendunak/ek beren jardueren esparruan egindako edozein tratamendu haien kontura eta haien erabakiz egin dela ulertuko da, tratamendu horren arduradun gisa, eta Norberaren Datuak Babestearen inguruko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakotik eta haren garapen-arauditik horretarako eratorritako betebeharrak bete beharko dira, tratamendu horren ondorioz.

- Enpresa kontratistak/ek ardura izango du/dute une bakoitzean aplika daitezkeen eta nahitaez bete behar den araudi osoari langileek men egiteko, alderdi teknikoari zein segurtasun eta higieneari dagokienean. Halaber, kasu egin beharko zaio eraikinaren barneko Erregelamenduari (bereziki segurtasunaren inguruan) nahiz Kontratazio Organoak emandako funtzionamendu orokorreko gainerako arauari.
- Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 118. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta, gauzatzeko baldintza berezi moduan hartuko dira ingurumen-arloko ondorengo betebeharrak, obren ingurumen-inpaktua gutxitze aldera:

Eraikuntzako hondakinei dagokienean, 105/2008 Errege Dekretuan adierazitakoa bete beharko da; dekretu horren bidez arautzen da eraikuntzako hondakinen eta eraispenen produkzioa eta kudeaketa. Hori kontuan izango da laneko proposamenak egiteko nahiz gauzatzeko.

Sortutako hondakin guztien tratamendutik eratorritako kostu ekonomikoak dagozkien unitateen prezioetan sartuta aurkitzen dira.

- Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 118. artikuluan ezarritakoari jarraiki, gauzatzeko baldintza berezi moduan hartuko da baita ere esleipendunak bere eskaintzan plantillaren inguruan adierazitako konpromisoak betetzea (konpromiso horiek, gainera, baloratuak izan dira).

22. KONTRATUKO FUNTSEZKO BETEBEHARRAK

Enpresa kontratistaren/en kontratuko funtsezko betebeharrak hauek izango dira:

- Proposamen teknikoan konpromisoa hartutako giza baliabideak eta baliabide materialak kontratura/kontratuetera adskribatzea eta, bereziki, bertan izendatutako obra-burua.
- Zehatz-mehatz betetzea SUSTAPENAREN erabakia; hau da, sorta bakoitzaren esleipendunak kontratua gauzatzen noiz hasi behar duen nahiz programazioa eta kronograma sorta bakoitzeko lanak garatzeko (horiek ere SUSTAPENAK erabaki eta eginak), Plegu honetako 6. klausulan agertzen diren baldintzen arabera.
- Lan-arloan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren eremuan indarrean dauden legezko xedapenak ez ezik, kontratutik eratorritako laneko betebeharrak ere betetzea, eta ez betetzearen ondorioz SUSTAPENA erantzukizunik gabe geratzea.
- Obra gauzatzeko hartutako langileek Gipuzkoako Eraikuntzaren Hitzarmen Kolektiboan maila berean konpara daitezkeen langileentzat ezarritakoa baino ordainsari baxuagoa ez jasotzeko konpromisoa errespetatzea.
- Eraikuntzako hondakinen eta eraispenen produkzioa eta kudeaketa erregulatzen duen 105/2008 Errege Dekretuan adierazitakoa betetzea. Sortutako hondakin guztien tratamendutik eratorritako kostu ekonomikoak dagozkien unitateen prezioetan sartuta aurkitzen dira.
- Esleipendunak bere eskaintzan plantillaren inguruan eta baztertzeko egoeran edo arriskuan aurkitzen diren langabeak kontratatzearen inguruan agindutakoa betetzea.
- Zuzendaritza fakultatiboarekin astero egin behar den bilerara eskumeneko teknikaria joatea.
- Jarduera gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak eskuratzea.
- Obrak babestea, kontserbatzea eta zaintzea harik eta obrak eman arte.
- Obraren garbiketa orokorra egitea, egon daitezkeen obra-hondakin edo objektu guztiak jasotzea eta garraiatzea.
- Obrak betetzea greba gertatuz gero. Obra gauzatzeko berratu ezin bada, SUSTAPENAK ahalmena izango du obrak betetzeko behar diren kontratuak sustatzeko; kasu horretan, fakturazioan aipatu kontratuen zenbatekoa kenduko da.

donostiasustapena fomentosansebastián

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
DONOSTIAKO GARAPEN EKONOMIKOA
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT



PLAN
AVANZA



- Adskribaturiko langileak ordezkatzeari lana behar bezalako arduraren eta eraginkortasunarekin betetzen ez badute, gaituta ez badaude, lanak egiteko oso arduratsuak ez badira edo kontratua ondo joateko ekintza kaltegarriak egiten badituzte. Gehienez 24 orduko epean ordezkatzeko dira, Obra Zuzendaritzak eskaera egiten duenetik kontatzen hasita.

Langileak ordezkatzeari ez du inolako erantzukizunik sortuko SUSTAPENARENtzat, enpresa kontratistaren eta kaltetutako langilearen arteko harremanei dagokienean.

Nolanahi ere, langile horiek Plegu honetan adskribapen konpromisoaren inguruan eskatutako ezaugarriak bete beharko dituzte.

- Gaixotasun-bajak, oporrak, baimenak, lizentziak, istripuak e.a. direla-eta, langile horiek ordezkatzeari eta kontratatutako obren prestazioa eraginkorra izatea bermatzea.

Nolanahi ere, langile horiek Plegu honetan adskribapen konpromisoaren inguruan eskatutako ezaugarriak bete beharko dituzte.

- Plegu honetako 23. klausulan adierazitako aseguru-polizak hartzea eta mantentzea.
- Plegu honetako 12. klausulan ezarritako behin betiko bermea eratzea.
- Lizitazioaren publizitateari dagozkion gastuak ordaintzea.
- Obretan aginduen liburua izatea, behar bezala beteta eta Zuzendaritza Fakultatiboaren eskura. Halaber, segurtasun eta osasun arloko plana izatea.
- Sartzen denak izango du eraikinaren legeztatze osoaren arduraren dagoeneko betetako I. FASEA legeztatuta dagoen edo ez alde batera utzita. Ondorioz, lanak hasi aurretik ikuskatu egin beharko du, egokitze jotako oharrak idatziz aurkeztearekin batera; izan ere, une horretatik aurrera, funtzionamendu egokiaren eta instalazio osoaren legeztatzearen erantzule bakarria izango da.
- Sistema guztiak behar bezalako funtzionamenduarekin entregatzea, eraikinean dagoeneko dauden zona komunak zein orain gauzatutako zona berrienak. Gainera, orain gauzatutako zatia legeztatzea beharko du, eta, dagoeneko abian diren aipatu instalazioak legeztatuta izan arren, instalazio osoa legeztatzea beharko du industriak horrela eskatuz gero.
- Obra-amaierari buruzko dokumentazio guztia entregatzea: As-built planoak, mantentze-liburua, ziurtagiriak, instalazioen eranskinak, bermea, fitxa teknikoak,...

Klausula honetan aurreikusitako betebeharrak kontratuko funtsezko betebeharren izaera izango dute, eta batez ere honako hauek: obra gauzatzeko hartutako langileek Gipuzkoako

Eraikuntzaren Hitzarmen Kolektiboan maila berean konpara daitezken langileentzat ezarritakoa baino ordainsari baxuagoa ez jasotzea, bosgarren gidoian jasotako ingurumen-arlokoak eta seigarren gidoian plantillaren inguruan aipatutakoak. Hori guztia SPKLTBko 223.f) artikuluan aurreikusitakoa betetze aldera. Ondorioz, horiek betetzen ez badira, kontratua suntsiarazteko arrazoia gertatuko da.

23. KONFIDENTZIALTASUNA

SUSTAPENAK ez du kontratistek konfidentzial gisa izendatuta emandako informaziorik erraztuko.

Enpresa kontratista(e)k kontratua(k) egikaritzerakoan jasotako eta Pleguetan konfidentzial izaera eman zaion edo beren izaeragatik horrela tratatzea eskatzen duen informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du(te). Betebehar horrek informazio horren berri jakin dutenetik hamar urteko epean iraungo du.

24. ERANTZUKIZUNAK ETA ASEGURUAK

1. Enpresa esleipenduna(e)k beren gain hartuko du(ituzte) kontratuen egikaritzearen ondorioz sor daitezkeen kalte-galera guztiak, horren/horien izaera eta bolumena edozein dela ere.

Kontratu(et)an ezarritako baldintzak alde batera utzita, enpresa esleipenduna(e)k kontratua(e)k dirauen bitarte osorako, horren/horien indarraldian gertatutako gertakarietarako, bere(n) kabuz eta eskusiboki bere(n) kargura, honako poliza hau kontratatuko du(te):

- a) Erantzukizun zibileko aseguru, kontratua egitearen ondorioz hirugarren pertsoneri eta beren ondasunei eragindako kalte-galereetatik eratorritako erantzukizuna babestuko duena.
- b) Aseguru honek, gutxienez, ustiapen-bermea edo orokorra, patronala eta defentsa eta fidantza bermea barnebildu beharko ditu.
- c) Aseguru honetako bermeetarako kalte-ordainen mugak ez du ezbeharren kasurako 1.000.000 euro baino txikiagoa izan behar. Erantzukizun zibil patronalean, biktimako azpimuga ere ez da 300.000 euro baino txikiagoa izango.
- d) Enpresa esleipenduna(e)k SUSTAPENARI, bere ondasunei edo langileei kalteak eragiten badizkio(e), horiek polizak kalte-ordaindu beharko dituen hirugarrentzat hartuko dira. Kalteak beste edozein hirugarrenei, SUSTAPENARI, bere ondasunei edo langileei sortuko balitzaizkie, horiek erantzukizun zibileko polizan aseguraturatzat hartuko dira.

donostiasustapena fomentosansebastián

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
DONOSTIAKO GARAPEN EKONOMIKOA
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT



PLAN
AVANZA



Edonola ere, enpresa esleipendun(ar)en kontura izango dira aseguru desberdinen frankizien zenbatekoa eta, baita, ezbeharrengatik zenbatekoa ere, aseguru-polizan finkatutako mugak gainditzen dituen heinean. Halaber, hark erantzun beharko die hirugarren kalte-ordainei eta polizak estaltzen ez dituen kalteei ere.

Enpresa esleipenduna(e)k, kontratua(k) izenpetu aurretik, erantzukizun zibileko aseguratzaileraren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu(zte) VI. Eranskinean, “Erakunde aseguratzaileraren Ziurtagiria” deituan, jasotako ereduaren arabera.

2. Enpresa esleipenduna(e)k bere(n) kontura eta, gutxienez, kontratu(ar)en egikaritzak dirauen bitartean eta gauzatu beharreko lanetarako, honako estaldura hauek edukitzen jarraitu beharko du(te):

- Enpresa esleipenduna(e)k eta azpi-kontratatuek, baldin baleude, indarrean dagoen araudiaren arabera, Gizarte Segurantzaren eta alta emanda eduki beharko ditu(zte) kontratu honen objektu diren obretan lanean diharduten langile guztiak eta, dagozkien hitzarmen sektorialekin zehaztutako bizitza- eta istripu-aseguruen eskakizunak ere bete beharko dituzte.

- Harpidetu beharreko erantzukizun aseguruak eta borondatezko erantzukizun zibilekoak, inoiz ez da 6.000.000 euro baino txikiagoa izango, bai norbere ibilgailuentzako bai enpresa esleipendunak erabil ditzakeen beste ibilgailuentzako.

3. Aipaturiko aseguru horiek kontratatzeak ez du kontratuzko gainerako estipulazioen arabera enpresa esleipenduna(e)k hartutako betebeharrak eta erantzukizuna mugatuko. Kontratatzaileen lehen mailako erantzukizun zuzena ere ezingo da murriztu, bigundu edo aseguratzaileraren baldintzetara edo jarduerara subrogatu.

4. Kontratu(ar)en indarraldian, SUSTAPENAK arestian aipaturiko aseguruari dagokien dokumentazioa erakusteko edo polizen kopia emateko eska diezai(e)ke esleipendunari/ei, edota primen ordainketarekin egunean daudela egiaztatzeko. Eta esleipenduna(e)k eskaera hori bete beharko du(te).

5. Aseguru propioak kontratatzeko baldintza arestian eskatutakoaren arabera eta SUSTAPENA asebieterik uzteko moduan ez-betetzea, kontratuzko falta larritzat hartuko da. Ondorioz, eskatutako epean SUSTAPENA asebieterik uzteko moduan eskatutako aseguruak kontratatuta ez baleude, SUSTAPENAK esleipendun(ar)en kontura eta kargura kontratatzeko eskubidea gordetzen du.

6. Esleipendun(ar)entzako ezartzen diren betebeharrak hark kontratatutako azpi-kontratatengana eta, oro har, kontratu(ar)en egikaritzan parte hartzen duten guztiengana ere hedagarri direla ulertzen da; ondorioz, betebeharrak horiek trasladatu eta kontrolatu beharko dira.

25. ZIGORRAK

Kontratista(k) proposamen teknikoan finkatutako gehienezko egikaritze-epearen baitan kontratua(k) betetzera behartuta egongo da.

Kontratista(k), berari/iei egotzi dakizkikeen arrazoiengatik berandutzan, kontratatutako prestazioen egikaritze akastunean edo kontratuzko beste edozein baldintzen ez-betetzearan jautzen bada, SUSTAPENAK honako erabaki hauetakoren bat hartu dezake: kontratua(k) suntsiaraztea Plegu honetako 32. Klausulan aurreikusten den baldintzetan, edota, kontratua(k) egikaritzen jarraitzea, kasu guztietan, SUSTAPENAREN alde izaera metatzailearekin dagozkion kalte-galerengatik kalte-ordainak sortuz, eguneroko zigorrekin, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,75 euroko proportzioan.

Berandutza horrek gehienezko epearen amaieran 6 hilabeteko atzerapena eraginez gero, horri jarriko zaion zigorra aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren hirukoitza izango da; zeinak, kasu honetan ere, izaera metatzailea edukiko duen, dagozkion kalte-galerengatik edozein kalte-ordainen gehigarri.

Egikaritze akastunaren edo kontratuzko beste edozein baldintzen ez-betetzearen kasuan, zigorrak akatsa zuzentzen atzeratutako egun-kopurua edo ez-betetzeak dirauen egun-kopurua konputatuz aplikatuko dira, beti ere, horren ondorioz obraren amaiera atzeratzen bada edo beste loteren baten egikaritzan atzerapena eragiten badu.

Hori alde batera utzita, egikaritze bereziko baldintzetatik eratorritako betebeharrak ez-betetzea kontratuaren esleipenaren zenbatekoaren %2aren baliokidea den zenbatekoarekin zigortuko da.

Kontratuarekin jarraitzea erabakitzen badu ere, ez-betetzeak dirauen bitartean, SUSTAPENAK, edozein unetan, kontratua suntsiaraztea erabaki dezake arestian aipatutako ondorioekin.

Zigorrak ordainketa osoaren kontzeptuan kontratistari/ei ordaindu behar zaien kopuruetatik edo behin betiko bermeari dagozkion zenbatekotik kenduta beteko dira edota, horietatik kendu ezin daitekeenean, dagozkion erreklamazioa eginez, eraturako bermea gainditzen duen zenbatekoan.

Edonola ere, kontratua(k) suntsiaraztea edo hura egikaritzen jarraitzea aukeren artean SUSTAPENAK aldebakarrekotasunez erabaki dezake berak beharrezko irizten dion denboran kontratua hirugarrenen bidez egikaritzen jarraitzea; kontratua egikaritzen jarraitze horrek eragindako kostuak kontratistari/ei egotziz, kalte-galerengatik kalte-ordainen eta Klausula honetan aurreikusitako gainerako ondorioen kalterik gabe.

26. HARRERA ETA BERME-ALDIA

Kontratista(e)k kontratua(k) bete du(t)ela/ditu(zt)ela ulertuko da hori/ek lote bakoitzari dagokion prestazioa bere osotasunean bertan zehaztutako baldintzen arabera gauzatzen denean/direnean eta SUSTAPENA asebeteta geratzen denean.

Obra amaitzen denetik, gehienez, hilabeteko epean, lote bakoitzari dagokionez, hura hartzeko ekintza formala eta positiboa gauzatuko da. Obra egoera onean badago eta aurreikusitako aginduen arabera gauzatuta, SUSTAPENAK lote bakoitzeko obra hartutzat emango du, horietako bakoitzean dagokion akta eginez; orduan hasiko da berme-aldia.

Lote guztiei edo lote bati dagokion obra hartua izateko egoeran ez dagoenean, horrela adieraziko da aktan eta Zuzendaritza Fakultatiboak sumatutako akatsak adieraziko ditu eta jarraibide zehatzak zehaztuko ditu, haiek konpontzeko epe bat finkatuz. Epe hori igarota eragindako kontratista(e)k konpondu ez badute/badituzte, gehiago luzatu ezin daitekeen epe berri bat eman ahal izango zaio(e) edo eragindako loteari/ei dagokio(e)n kontratua(k) suntsiarazita aitortu.

Lote bakoitza hartzen denetik zenbatzen hasita hiru hilabeteko epean, Kontratazio-Organoak gauzatutako obraren obra amaierako ziurtagiria onartu beharko du, zeina, kontratistari ordainduko zaion kontratuaren/en likidazioaren kontura.

Lote guztientzako urtebeteko berme-aldia ezartzen da.

Obra gauzatzen d(ir)en bitartean eta berme-aldia bete arte, kontratista(k) izango d(ir)a eraikuntzan sumatu daitezkeen akatsen erantzulea.

Berme-aldia amaitu aurreko hamabost egunen baitan, Zuzendaritza Fakultatiboak, ofizioz edo kontratistaren/en eskariz, obraren egoerari buruzko txosten bat idatziko du. Txostena aldekoa bada, kontratista(k) erantzukizun guztietatik askatuko da, hurrengo paragrafoan xedatutakoan izan ezik, eta bermea(k) itzuliko edo kitatuko zaio(e), kontratua(k) kitatuko d(ir)a eta, hala badagokio, ordaintzeko geratu diren betebeharrak ordainduko zaizkio, zeina, hirurogei eguneko epean egin beharko den. Txostena aldekoa ez bada eta sumatutako akatsak obraren egikaritzan izandako akatsen ondorio badira eta ez berme-aldian zehar eraikitakoari eman zaion erabileraren ondorio, Zuzendaritza Fakultatiboak eraikitakoa behar bezala konpontzeko jarraibide egokiak emango dizkio(e) kontratistari/ei, horretarako, epe bat emanaz, zeinetan, obraren kontserbazioaren arduradun izaten jarraituko duten, berme-aldia zabaltzeagatik ezer kobratzeko eskubiderik gabe.

Obra berme-aldia amaitu ondoren hondatzen bada eraikuntzako ezkutuko bizioen ondorioz, kontratista(e)k kontratua(k) bete ez d(it)uelako, horrek erantzungo du obra hartu ondorengo hamabost urteko epean azal daitezkeen kalte-galerez.

Epe hori inolako kalterik azaldu gabe igarotzen bada, kontratist(ar)en erantzukizuna guztiz iraugita geratuko da.

27. KONTRATU(AR)EN LAGAPENA

Kontratu(eta)tik eratorritako eskubideak eta betebeharrak SUSTAPENAREN aldez aurreko esanbidezko eta idatzizko baimena badago soilik laga ahal izango zaizkio hirugarren bati eta, beti ere, lagapen-hartzailea(e)k legezko eskakizunak eta Plegu honetan SUSTAPENAREKIN kontratatzeke eskatutakoak betetzen baditu(zte), kontratatzeke debekurik ez badu(te), beren sailkapena egiaztatzen badu(te) eta kontratista(e)k eskainitako baliabideen esleipenerako betebeharra betetzeko konpromisoa hartzen badu(te). Hori guztia lagapenaren objektu diren eskubideei eta/edo betebeharrei dagokienez.

28. KONTRATU(AR)EN AZPIKONTRATAZIOA

Kontratu(ar)en prestazioak SUSTAPENAREN aldez aurreko esanbidezko eta idatzizko baimena badago soilik azpikontratatu ahal izango dira eta, beti ere, azpikontratatzaileek legezko eskakizunak eta Plegu honetan SUSTAPENAREKIN kontratatzeke eskatutakoak betetzen baditu(zte), beren sailkapena egiaztatzen badu(te) eta kontratista(e)k eskainitako baliabideen esleipenerako betebeharra betetzeko konpromisoa hartzen badu(te). Hori guztia azpikontratatu behar den prestazioari/ei dagokienez.

Azpi-kontratatzaile(ar)en aurrean soilik egongo dira obligatuta, zeinak/zeintzuek, SUSTAPENAREN aurrean prestazioa egikaritzearen erantzukizun osoa hartuko du(t)en, Klausula Ekonomikoen eta Administrazio-Klausulen Pleguaren, Egikaritze-Proiektuaren eta izenpetzen d(ir)en kontratuen baldintzen arabera.

29. KONTRATU(AR)EN ALDAKETA

Behin kontratua perfektionatutakoan, Kontratazio-Organoko SPKLTBaren 107. artikuluan aurreikusitako suposuetan soilik aldatu ahal izango d(it)u kontratua(k).

30. ERANTZUKIZUNA

Enpresa(k) kontratista(k) izango d(ir)a eskainitako prestazioen kalitate teknikoaren arduraduna(k) eta, baita, kontratu(ar)en egikaritzean izandako ez-egite, akats, metodo desegoki edo ondorio okerretatik SUSTAPENARENTZAT edo hirugarrenentzat eratorritako ondorioen arduradunak ere.

Enpresa kontratist(ar)en betebeharra izango da kontratu(ar)en egikaritzeak eskatutako eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galera guztiengatik kalte-ordainak ematea.

SUSTAPENA eraikineko instalazioetan edo materialetan eragindako hondaketez edo kalteez enpresa kontratista(e)k erantzungo du(te), egin beharreko konponketak edo ordezkatzak haien kontura izanez.

Enpresa kontratista(k) izango d(ir)a prebentziozko osasun-estaldurako zerbitzuko langileekiko betebeharren erantzule bakarrak, berena nahiz kontratatutako enpresa batena izan; hari/haiei dagokie langile horien ordainsaria eta beste edozein gizarte- edo lan-gastu ordaintzea. SUSTAPENA inolaz ere ez da enpresa kontratistak prebentziozko osasun-estaldurako zerbitzuko langileekiko betebeharren erantzule izango.

31. KONTRATU(AR)EN ETENDURA

SUSTAPENAK kontratu(ar)en etendura erabakiko balu edo hori SPKLTBeko 216. artikulua 5. atalean xedaturikoaren aplikazioz gertatuko balitz (ondorio horietarako espresuki aplikagarritzat ezartzen dena), Akta egingo da hori eragin duten inguruabarrak eta haren/haien egikaritzean duen egitatezko egoera jasoz.

Etetea erabakiz gero, SUSTAPENAK enpresa esleipendunari/ei benetan jasandako kalte-galerak ordainduko dizkie.

32. SUNTSIARAZPENA

Kontratuaren suntsiarazpen-arrazoia izango dira SPKLTBeko 223 a) artikuluan aurreikusten direnak, 85 b), d), e), f), g) eta h) hizkietan aurreikusitako eta, oro har, kontratuzko edozein betebeharren ez-betetzeen, Kode Zibileko 1.124 artikulua aurreikusitakoarekin bat, kalterik gabe.

Klausula honetan aurreikusitako edozein kasutan, hori automatikoki aplikatuko da SUSTAPENAK enpresa kontratistari/ei jakinarazpen frogagarria egite soilarekin, ondoren dagokion kontratua(k) kitatzearen kalterik gabe, jarraian xedatzen denarekin bat.

Klausula honetan aurreikusitako nahiz legez bidezkoak izan daitezkeen beste edozein arrazoiengatik kontratu(ar)en suntsiarazpenetik erator daitezkeen erantzukizun ekonomikoak kontratua(k) efektiboki suntsiarazitakoan eta dagokion dokumentazioa entregatutakoan likidatuko dira, SUSTAPENAK hura egikaritzen jarraitu dezan oztopo izan gabe.

Suntsiarazpen-kasu guztietan, enpresa kontratista(e)k, hasiera batean, efektiboki gauzatutako lan guztien prezioa jasotzeko eskubidea du(te).

Kontratuaren/en suntsiarazpena enpresa kontratistari/ei egotzi dakizkiokeen edozein arrazoik eragiten duenean, SUSTAPENAREN alde, dagozkion kalte-galerengatik kalte-ordainei izaera metatzailearekin gehituz, lote bakoitzaren esleipen-prezioaren %20aren baliokidea den zenbatekoa sortuko du.

Zenbateko bat zein bestea behin betiko bermetik eta enpresa kontratistari/ei ordaintzeko dagoen prezioetik kenduko dira eta, hala badagokio, gehiagoko zenbatekoa dagokion erreklamazioaren objektu izango da.

33. ARAUBIDE JURIDIKOA

Prestaketari eta esleipenari dagokionez, kontratua(k) Klausula Ekonomikoen eta Administrazio-Klausulen Plegu honek eta Proiektuak arautuko ditu eta, horietan aurreikusten ez denerako, berriz, SUSTAPENAREN kontrataziorako barne-jarraibideak, horretarako SPKLTBean xedatutako arauak eta, hala badagokio, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua (aurrerantzean, 817/2009 ED), Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duena, izango dira aplikagarri eta, arau horretan aurreikusitakoa aurkaesaten ez duen heinean, urriaren 12ko 1098/2001, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (aurrerantzean, APKLEO) onartzen duena.

Eraginei eta iraungipenari dagokionez, kontratua(k) Klausula Ekonomikoen eta Administrazio-Klausulen Plegu honek eta Proiektuak arautuko ditu eta, horietan aurreikusten ez denerako, zuzenbide pribatuko arauak izango dira aplikagarri, kontratu(ar)en aldaketari dagokionean izan ezik, non, edozein kasutan ere, SPKLTBeko I. Liburuko V. Tituluan xedatutakoa izango den aplikagarri.

Osagarri gisa, SPKLTB, 817/2009 ED eta APKLEO izango dira aplikagarri Plegu honek arauzko testu horietara espresuki igorpena egiten duenean.

34. JURISDIKZIOA

Jurisdikzio-ordena zibila izango da kontratu(ar)en prestaketa, esleipena, eraginak, betetzea eta iraungipenari dagokionez alderdien artean sor daitezkeen eztabaidak ebazteko eskumenduna.

donostiasustapena fomentosansebastián

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
DONOSTIAKO GARAPEN EKONOMIKOA
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT



PLAN
AVANZA



Donostian, 2013ko apirilaren 15ean

Josu Mirena Ruiz
Donostiako Sustapena S.A. sozietateko lehendakariordea.

I. ERANSKINA. ABALAREN EREDUA

Erakundeak [...] (kreditu-erakundearen edo elkarrenganako bermedun sozietatearen izena), IFK. [...], egoitza [...] (jakinarazpen- eta errekerimendu-ondorioetarako) duena eta, bere izenean, [...] (ahaldunen izen-abizenak), ekintza honetan behartzeko adinako ahalmenekin, agiri honen beheko aldean aipatzen duen ahalmenen askiespenaren arabera, ABALATZEN DU [...] (abalatuaren izen-abizenak edo sozietatearen izena), IFK. [...], DONOSTIAKO SUSTAPENA, S.A. sozietatearen aurrean, [...] (e)ko zenbatekoagatik **“ENERTIC EGIKARITZE-PROIEKTUA, II. FASEA, DONOSTIAKO BULEGOEN BARNEALDEAREN EGOKITZAPENA”** proiektua loteka kontratatzeko lizitazioko [...] lotea kontratatzetik eratorritako betebeharrei erantzuteko.

Erakunde abal-emaileak, bere erantzukizunpean aitortzen du urriaren 12ko 1098/2001, Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorreko 56.2 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituela. Abal hau obligatu nagusiarekiko solidarioki ematen da, eskusio- eta banaketa-onurari espresuki uko eginez eta DONOSTIAKO SUSTAPENA, S.A. sozietateak egindako lehenengo errekerimenduan ordaintzeko konpromisoarekin.

Abal hau DONOSTIAKO SUSTAPENA, S.A. sozietateak hura balio gabetzea edo itzultzea baimendu arte indarrean egongo da.

Lekua eta data [...].

Erakundearen izen soziala [...].

Ahaldunen sinadura [...].

II. ERANSKINA. ADIERAZPENEN NOTARIO-AKTAREN EREDUA LIZITATZAILEAK SAILKAPENA ETA/EDO GUTXIENGO GIZA BALIABIDE JAKINAK ESLEITZEKO KONPROMISOA EGIAZTATZEKO BESTE ERAKUNDE BATZUEN BITARTEKOETAN OINARRITU NAHI DUEN KASURAKO

..... jaun/andreak, NAN zenbakiarekin,
..... enpresaren, IFK, legezko ordezkari gisa,
“ENERTIC EGIKARITZE-PROIEKTUA, II. FASEA, DONOSTIAKO BULEGOEN
BARNEALDEAREN EGOKITZAPENA” proiektua loteka kontratatzeko lizitazioaren
baldintza guztiak ezagutzen dituela adierazten du, zeinetara, lizitatzailerak
..... (enpresa lizitatzaileraren izena) agertzen den, eta lizitatzailerak horren
erabilgarri, [...] lotearen esleipendun gertatzen bada, kontratua egikaritzeko sailkapena eta
beharrezko baliabideak jartzeko atzera bota ezinezko borondatea agertzen duen, Kode
Zibileko 1257.2 artikuluan xedaturikoa espresuki onartuz; Donostiako Sustapena, S.A.
sozietateak espresuki baimendu beharko du horren ordezkapena edo aldaketa.

Donostiako Sustapena, S.A. sozietatearen aurrean idatzi hau agertzeak, lizitatzailerak
esleipendun gertatzen den kasuan, konpromiso hori onartzean duela adierazi nahi du.

.....n, 2013koren(e)an.

[Sinadura]

III. ERANSKINA JAKINARAZPENAK JASOTZEKO LEHENTASUNA IZANGO DUEN BIDEA AUKERATZEA

.....jaun/andreak, egoitzaan eta
.....NAN zk. duenak, bere izenean edo ren ordezkartzan,
egoitzaan etaNAN zk. edo zenbakiko IFK
duenak, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, **“ENERTIC EGIKARITZE-
PROIEKTUA, II. FASEA, DONOSTIAKO BULEGOEN BARNEALDEAREN
EGOKITZAPENA”** proiektua, prozedura ireki bidez, loteka kontratatzeko lizitazioa
eraenduko duen Klausula Ekonomikoen eta Administrazio-Klausulen Pleguaren eta
Egikaritze-Proiektuaren jakinarean gainean, honen bitartez, lizitazio honen harian Donostiako
Sustapena, S.A. sozietateak egin beharreko edozein jakinarazpen hartzeko lehentasunezko
bidetzat honako hau aukeratzen du (*):

- Faxe.
- Posta elektronikoa.

Halaber, interesa daitezkeen honako datu hauek ere adierazten dira:

- Harremanetarako telefonoa(k):
- Posta elektronikoaren helbidea:
- Posta-helbidea:

[Oharra: Jakinarazpenei arintasun handiagoa emateko, lizitatzaillearen faxa lehentasunezko bide gisa aukeratzea gomendatzen da; bide hori, lizitatzailleak berak adierazitakoa izatean, jakinarazpen-ondorioetarako erabat baliozkoa izango da. Aukeraketa hori egin ezean, jakinarazpena adierazitako helbidean posta ziurtatuz egin beharko litzateke.]

.....n, 2013koren(e)an.

[Sinadura]

]

IV. ERANSKINA. ADIERAZPEN ARDURATSUAREN EREDUA

“ jaun/andreak bizilekua
anNAN zk.,
 telefonoa eta e-maila duenak, gaitasun
juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, bere izenean edo
ren ordezkartzan, egoitza
an eta NAN edo IFK [pertsona fisikoa edo juridikoa
denaren arabera] zk. duenak, **“ENERTIC EGIKARITZE-PROIEKTUA,
II. FASEA, DONOSTIAKO BULEGOEN BARNEALDEAREN EGOKITZAPENA”** proiektua,
prozedura ireki bidez, loteka kontratatzeko lizitazioa eraenduko duen Klausula Ekonomikoen
eta Administrazio-Klausulen Pleguaren jakinaren gainean,

AITORTZEN DU:

LEHENENGOA: Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duenaren, 60.1 artikuluan eta gai horri dagokionez indarrean dauden gainerako legezko xedapenetan jasotako bateraezintasunetan eta kontratatzeko debekuetan murgildurik ez dagoela.

BIGARRENA: Zerga eta Gizarte Segurantzaren arloetan indarrean dauden araudiek eskatutako eskakizun eta betebeharrak guztiak betetzen dituela.

.....n, 2013koren(e)an.

Izpta:.....

V. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA.

“..... jaun/andreak bizilekua
.....an etaNAN
zk., duenak, bere izenean edo
.....ren ordezkaritzan, gaitasun juridiko eta
jarduteko gaitasun osoz, **“ENERTIC EGIKARITZE-PROIEKTUA, II. FASEA, DONOSTIAKO
BULEGOEN BARNEALDEAREN EGOKITZAPENA”** proiektua, prozedura ireki bidez,
lotea kontratatzeko lizitazioa eraenduko duen Klausula Ekonomikoen eta Administrazio-
Klausulen Pleguaren eta Proiektuaren jakinaren gainean egonda,

AITORTZEN DU:

1. **ENERTIC EGIKARITZE-PROIEKTUA, II. FASEA, DONOSTIAKO BULEGOEN
BARNEALDEAREN EGOKITZAPENA”** proiektuko [...] lotea egikaritzeko konpromisoa
hartzen duela euroko prezioaren truke, dagokion BEZarekin
gehituta.

Edozein kasutan ere, hura egikaritzeko konpromisoa hartzen du, proposamen ekonomiko
honi erantsitako aleko prezio banakatuen arabera (5. lotearen kasuan soilik) eta, *zehazki, X.
Eranskinean aurreikusitako zerbitzuen kontrataziorako, egikaritzarako eta ordainketarako
konpromisoa.*

2. Klausula Ekonomikoen eta Administrazio-Klausulen Plegua eta Egikaritze-Proiektua
ezagutzen duela eta, bere osotasunean, espresuki bere gain eta ontzat hartzen duela.

3. Indarrean dagoen legediak kontratu hau egiteko eskatutako eskakizun eta betebeharrak
guztiak betetzen dituela.

4. Halaber, lan-, prebentzio- eta zerga-arloan indarrean dauden araudiak betetzera
behartzen da.

.....n, 2013koren(e)an.

[Sinadura]

VI. ERANSKINA. ERAKUNDE ASEGURATZAILEAREN ZIURTAGIRIA

ERAKUNDE ASEGURATZAILEAREN ZIURTAGIRIA

.....jaunak, erakunde
aseguratzailearen izenean eta ordezkaritzan jardunez, herriko
..... Notario jaunak(e)an baimendutako
zenbakidun ahalordetze-eskrituran jasotzen denaren arabera,

ZIURTATZEN DU:

Eransten diren eta beherago zerrendatzen diren aseguru poliz(ar)en edukia kapitalari, arriskuari/ei, bermeari/ei eta aseguraturako mugari/ei dagokienez, Donostiako Sustapena S.A. sozietatearen etaren arteanrako (kontratuaren objektu den jardueraren deskribapena) izenpetuko den kontratuan gutxiengoko izaerarekin finkatzen den edukietara egokitzen dela.

Erakunde aseguratzaileak kontratatutako poliza(k) aldez aurretik modu frogagarrian Donostiako Sustapena S.A. sozietatearen Gerentzia-Arloari jakinarazi gabe inolako zentzutan ez aldatzeko konpromisoa hartzen du.

Dagozkion ondorioetarako, ziurtagiri hau ematen da, behealdean Notario aurrean behar bezala kautotua, behean adierazitako lekuan eta datan.

Aseguru-mota poliza-zenbakia Aseguratzailea Eragin-data Muga-eguna

.....n, 2013koren(e)an.

Izenpetua: (izena, zigilua eta sinadura)

VII. ERANSKINA. ATXIKIPEN-KONPROMISOA ETA CURRICULUM VITAE EREDUA

.....jaun/andreak, egoitzaan eta
.....NAN zk. duenak, bere izenean edo ren ordezkartzan,
egoitzaan etaNAN zk. edo zenbakiko IFK
duenak, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, **“ENERTIC EGIKARITZE-
PROIEKTUA, II. FASEA, DONOSTIAKO BULEGOEN BARNEALDEAREN
EGOKITZAPENA”** proiektua, prozedura ireki bidez, **KONTRATATZEKO** lizitazioa
eraenduko duen Klausula Ekonomikoen eta Administrazio-Klausulen Pleguaren eta
Proiektuaren jakinaren gainean,

SUSTAPENA eraikineko jatetxearen alboko terraza zaharberritzeko obren kontratuaren
egikaritzari atxikitzeko konpromisoa hartzen du:

IZEN-ABIZENAK:.....

TITULAZIO AKADEMIKOA:

-
-
-

ESPERIENTZIA-URTE KOPURUA: URTE.

KONTRATUAREN OBJEKTU DIREN LANEN ANTZEKO LAN EGINAK:

-
-
-
-
-
-
-

VIII. ERANSKINA: GIPUZKOAKO ERAIKUNTZAN INDARREAN DAGOEN HITZARMEN KOLEKTIBOKO ORDAINSARIAK ERRESPETATZEKO ETA APLIKATZEKO ADIERAZPEN ARDURATSUAREN EREDUA

.....jaun/andreak, egoitzaan eta
.....NAN zk. duenak, bere izenean edo ren ordezkartzan,
egoitzaan etaNAN zk. edo zenbakiko IFK
duenak, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, **“ENERTIC EGIKARITZE-
PROIEKTUA, II. FASEA, DONOSTIAKO BULEGOEN BARNEALDEAREN
EGOKITZAPENA”** proiektua, prozedura ireki bidez, **KONTRATATZEKO** lizitazioa
eraenduko duen Klausula Ekonomikoen eta Administrazio-Klausulen Pleguaren eta
Proiektuaren jakinaren gainean,

ESPRESUKI ETA MODU ARDURATSUAN AITORTZEN DU

Konpromisoa hartzen duela, bera esleipendun gertatzen bada, obraren egikaritzan enplegatutako langileei Gipuzkoako Eraikuntzaren Hitzarmen Kolektiboan alderagarri diren langileentzako finkatutako ordainsaria baino txikiagoa ez ordaintzeko.

(Lekua, data eta sinadura)

IX. ERANSKINA. OBRA EGIKARITZEKO KONTRATATUTAKO ETA KONTRATATUKO DIREN LANGILEEI BURUZKO KONPROMISOAREN ADIERAZPEN ARDURATSUAREN EREDUA

.....jaun/andreak, egoitzaan etaNAN zk. duenak, bere izenean edo ren ordezkartzan, egoitzaan etaNAN zk. edo zenbakiko IFK duenak, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, **“ENERTIC EGIKARITZE-PROIEKTUA, II. FASEA, DONOSTIAKO BULEGOEN BARNEALDEAREN EGOKITZAPENA”** proiektua, prozedura ireki bidez, **KONTRATATZEKO** lizitazioa eraenduko duen Klausula Ekonomikoen eta Administrazio-Klausulen Pleguaren eta Proiektuaren jakinaren gainean,

ESPRESUKI ETA MODU ARDURATSUAN AITORTZEN DU

Konpromisoa hartzen duela, bera esleipendun gertatzen bada, obraren egikaritzarako honako langile hauekin kontatzeko:

Obra egikaritzera pertsona/hilean dedikatuko dira (pertsona kontratatu bat hilabete osorako lanaldi osoarekin)

Modu berean, obra egikaritzeko, aldez aurretik lan-eskaintza SUSTAPENEAN aurkeztuz, gizarte-bazterketa egoeran edo hori jasateko arriskuan dauden pertsona langabetu kontratatuko dira; horien dedikazioa obra amaiera arte pertsona/hilean-en baliokidea izango da.

(Lekua, data eta sinadura)

X. ERANSKINA OBRA LOTEKA ANTOLATZETIK ERATORRITAKO MANUAK

1. SARBIDEEN KONTROLA

- 5. Lotearen esleipendunak lanegunetan obra 8:00etatik 19:00etara ireki eta ixteko ardua edukiko duen zaintza-zerbitzu bat kontratatuko du eta horrek eragindako kostua ordainduko du; bera arduratuko da obrara zein sartzen den kontrolatzeaz ere (NAN bidez identifikatu beharko dute).
- Lan-ordutegia aurreko puntuan finkatutakora murriztuta geratuko da, eguneko gainerako orduetan eta asteburuetan obra itxita egongo da eta intrusioen aurkako sistema aktibatuko da. Proiektu teknikoan jasotako 5. lotearen aurrekontuak gastu hori barne hartzen du, beraz, lote horretara aurkezten den lizitatzailerak bere eskaintza ekonomikoan ere sartu beharko du (*).
- Zerbitzu horren kalterik gabe, sarbideen kontrolaren erantzukizuna eta zaintza loteen esleipendun bakoitzari eta guztiei dagokie.

2. KARGA-JASOGAILUA

- 5. lotearen esleipendunak eraikinaren atarian karga-jasogailua jartzea eta haren mantentze-lana kontratatuko eta ordainduko du, zeina, materialentzako soilik erabiliko den (250kg gehienez).
- Proiektu teknikoan jasotako 5. lotearen aurrekontuak gastu hori barne hartzen du, beraz, lote horretara aurkezten den lizitatzailerak bere eskaintza ekonomikoan ere sartu beharko du (*).
- Karga-jasogailu hori lote guztietarako erabili ahal izango da eta horren erabilera arduratsuen erantzukizuna loteen esleipendun bakoitzari eta guztiei dagokie.

3. IGOGAILUAK

- SUSTAPENAK obrako langileek soilik erabiltzeko izango den igogailua gaituko eta legeztatuko du.
- Igogailu hori babestea 5. lotearen esleipendunari dagokio eta gastu arrunten %13 horretan sartuta ulertzen da.
- Horren funtzionamenduaren erantzukizuna loteen esleipendun bakoitzari eta guztiei dagokie.
- Debekaturik geratzen da obrako materialak igotzeko igogailua erabiltzea.

4. JARDUERA-EREMUAK

- Jarduera-eremuak Egikaritzza-Proiektuan, “A jarduera-eremuak” planoetan zehazturik datoz. Halaber, zein eremu komunetara sar daitekeen mugatuko da eta lan egitea beharrezkoa ez den eraikineko zonen erabilera murriztuta geratuko da.
- Beheko solairuan, obrara ekialdeko fatxadatik sartuko da.

- Ondorio horietarako, 5. lotearen esleipendunari dagokio beira kentzea eta obrako ate bat jartzea (hori izango da horra sartzeko sarbide bakarra), eta, baita, beheko solairu horretako zorua eta goiko solairuetako korridoretakoa babestea ere, zoru bero-emailea baita.
- Proiektu teknikoan jasotako 5. lotearen aurrekontuak gastu hori barne hartzen du, beraz, lote horretara aurkezten den lizitatzailak bere eskaintza ekonomikoan ere sartu beharko du ^(*).
- Babes horren kalterik gabe, zoru horien erantzukizuna eta mantentze-lana eta jarritako babesarena loteen esleipendun bakoitzari eta guztiei dagokie.

5. HONDATUTAKO, LAPURTUTAKO ELEMENTUAK BIRJARTZEA EDO APARTEKO BESTE GASTU BATZUK. OBRAKO HORNIDURAK

- Obrako ziurtagiri guztietatik %3 atxikiko da; horrekin, funts bat eratuko da eta hortik estaliko dira hondatutako, desagertutako elementuen birjarpenak eta aparteko gastuak Zuzendaritza Fakultatiboak egozgarritasuna esleipendun jakin batena dela zehaztu ezin duen kasuan.
- Halaber, SUSTAPENAK funts horren kargura ordainduko ditu obrako hornidurak, horien artean, ura eta elektrizitatea.
- Funts hori SUSTAPENAK kudeatuko du Zuzendaritza Fakultatiboaren eskariz eta, obra guztiz amaitzen denean, kitatu egingo da.

6. ALDAGELAK ETA METAKETAK

- Zuzendaritza Fakultatiboak, obraren hasieran, hura egikaritzeko lote bakoitzari emango zaion beharrezko espazioa zein izango den erabakiko du.
- Zona horietara sarrera lotearen esleipendunak soilik edukiko du.
- Esleipendun bakoitzak egoera onean eduki beharko ditu esleitzen zaizkion zonak.

7. KRONOGRAMA

- Obra bakoitzari ekiterakoan, Zuzendaritza Fakultatiboak obra-buruak deituko ditu koordinazio-bilera bat egiteko. Bertan, lanen egikaritzaren ordena zehaztuko da antolakuntza ahalik eta onena izan dadin eta esleipendun bakoitzak ahalik eta independentzia handiena izan dezan; edonola ere, esleipendunek beren lanak horretarako esleitu zaien epean gauzatu beharko dituzte, baten atzerapenak segidakoaren lanean eragiten du eta, ondorioz, obraren errendimendu osoan.

(*) Edonola ere, Eranskin honetan aurreikusitakoaren arabera, 5. lotearen esleipendunak bere gain hartutako eta ordaindutako kontratazio eta gastu guztiak aldeztatik obrako Zuzendaritza Fakultatiboak espresuki baimenduak izan behar dute.

XI. ERANSKINA GIZARTE-BAZTERKETA EGOERAN EDO ARRISKUAN JOTZEN DIREN PERTSONA LANGABETUEN TALDEEN ZERRENDA

Gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden langile langabetutzat hartuko dira organo eskumendunek gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan daudela edo lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituztela egiaztatzen duten langile langabetuak, hots, jarraian zehazten diren taldeetan sartzen direnak:

- Gizarteratzeko Gutxiengo Errentak edo izaera berdina edo antzekoa duen beste edozein prestazio jasotzen dutenak, autonomia erkidego bakoitzean hartzen duen izenaren arabera, nahiz prestazio horren onuradun diren bizikidetz-unitateko kideak.
- Aurreko paragrafoan aipatzen diren prestazio horiek lortu ezin dituztenak jarraian zehazten diren arrazoia medio:
 - Eskatzen den egoitza, erroldatze edo Unitate Hartzailea eratzeko denboraldira ez iristea.
 - Prestazio hori jasotzeko lege ezarritako gehienezko epea agortu izana.
- Prebentzio- eta gizarteratze-zerbitzu publikotik datozen edo horiek baimendutako pertsonak.
- Adin txikien Babeserako Erakundeetatik datozen hamazortzi urtetik gorako eta hogeita hamarretik beherako gazteak.
- Gizarte-ostatuetakako zentro publikoetatik datozen eta/edo horiek baimendutako pertsonak.
- Espetxeetan dauden eta beren espetxe-egoerak enplegua edukitzea baimentzen dieten pertsonak eta, baita, baldintzapean askatutakoak eta preso ohiak ere.
- Urtarrilaren 12ko 5/2002 Lege Organikoaren aplikazio-eremuan, adin txikien zigor-erantzukizuna arautzen duena, sartzen diren eta beren egoerak enplegua edukitzea baimentzen dieten adin txikiko internoak eta, baita, zaintzapeko askatasunean daudenak eta interno ohiak direnak ere.
- Droga-menpekotasun arazoak edo menpekotasuna sortzen duten beste nahasmendu batzuk dituzten eta birgaitze edo birgizarteratze-prozesuan dauden pertsonak.
- Minusbaliotasunak dituzten pertsonak. Talde horretan sartuko dira erakunde ofizial eskumendunak emandako minusbaliotasun-ziurtagiria dutenak (gutxienez, %33koa minusbaliotasuna).
- Denbora luzez langabezian dauden enplegua eskatzen duten emakumeak.
- Denbora luzez langabezian dauden enplegua eskatzen duten 45 urtetik gorakoak.
- 30 urtetik beherako, prestakuntza txikia duten eta denbora luzez langabezian dauden enplegu-eskatzaileak edota, lehenengo enplegua eskatzen dutenak

donostiasustapena fomentosansebastián

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
DONOSTIAKO GARAPEN EKONOMIKOA
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT



PLAN
AVANZA



- Etorakinak